

**ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN ETA XEHETASUN
TEKNIKOEN PLEGUA
PUBLIZITATE AGENTZIA BATEN KONTRATAZIORAKO.**

Aurkibidea

01. Kontratuaren xedea.....	1
02. Betearazpen epea.....	1
03. Lizitazioaren gehienezko aurrekontua	1
04. Ordaintzeko era.....	2
05. Prezioak berrikustea.....	2
06. Bermeak.....	2
07. Kontratua betearaztea.....	3
08. Esleipendunaren oinarrizko betebeharrak.....	3
09. Bermearen onarpena eta epea.....	5
10. Betebeharrak ez betetzea eta zigorrak.....	5
11. Kontratua suntsiarazteko arrazoiak.....	7
12. Esleitzeko prozedura eta modua.....	7
13. Kontratatzeko ahalmena.....	8
14. Proposamenak aurkeztea.....	8
15. Agiriak sailkatzea eta eskaintzak zabaltzea.....	10
16. Esleipena eta formalizazioa.....	10
17. Kontratua aldatzea.....	11
18. Izaera eta araubide juridikoa.....	11
19. Jurisdikzio eskuduna.....	11
1. Eranskina.....	12
2. Eranskina.....	13
3. Eranskina.....	16
4. Eranskina.....	18

01. KONTRATUAREN XEDEA.

Plegu honen helburua da Juan Crisóstomo Arriaga-Bilbao Orkestra Sinfonikoa Fundazioarentzako (aurrerantzean BOS) **PUBLIZITATE AGENTZIA** bat kontratatzea, kontratu izaera izango duen txostenean datozen zehaztasun teknikoekin bat etorritz.

Kontratatu nahi den zerbitzuan honakoak sartuko dira:

- a) Iragarkien kudeaketa, tartean daudelarik iragarkiak sortu, prestatu, programatu eta banatzeko lanak, prentsan zein ikus-entzunezko medioetan, bai eta komunikazio publiko edo instituzionalerako iragarkiak eta espezialitate beraren barruko ohiko zerbitzu osagarriak ere, 1. eranskineko xehetasunari jarraituz.
- b) 2. eranskinean aipatzen den publizitate-material guztia sortzea.

CPV kodea: 79341000-6

02. BETEARAZPEN EPEA.

Kontratuaren iraupena **lau (4) urtekoa** izango da, sinatzen denetik zenbatzen hasita.

Edozein kausa dela medio, kontratua bide arrunt edo ez arruntetik hautsiko balitz, zerbitzuak jarraituko duela bermatzeko helburuarekin, BOSeko kontratazio batzordeak kontratuaren derrigorrezko luzapena adostu ahal izango du. Luzapenak kontratu berria esleitu arte iraungo du, baina inoiz ez sei hilabete baino gehiago.

03. LIZITAZIOAREN GEHIENEZKO AURREKONTUA

Lizitazioaren gehienezko aurrekontua **102.729,84 eurokoa** izango da.

Kontratuaren gutxi gorabeherako prezioa **410.919,36 eurokoa** da.

Aurrekontu hau modu honetan dago banakatuta:

- a) Iragarkien kudeaketak, gehienez ere, 35.167,44 euro hartzen ditu urtean, eta lizitatuzaileek beherantz hobetu ahal izango dute zenbateko hori.
- b) Publizitate-materialak, gehienez ere, 67.562,40 euro hartzen ditu urtean. Aurreko zenbatekoa modu honetan banakatzen da, prezio unitarioaren eran eta 2. eranskinean adierazitako zenbatekoetarako. Lizitatuzaileek beherantz hobetu ahal izango dituzte zenbateko horiek.

Kontzeptua	Prezio unitarioa
Denboraldiko egitarau bat	2,5520 €
Denboraldiko aurrerapen bat	0,1050 €
Denboraldi sinfonikoko eskuko egitaraua	0,6297 €
Ganberako denboraldiko eskuko egitaraua	0,8431 €
Ganbera Bizkaian denboraldiko eskuko egitaraua	0,1144 €

Askotariko triptikoak (“Musika, hurbiletik” eta beste batzuk...)	0,1590 €
Kartel bat	7,9200 €
Olana mikrozulatu bat	963,000 €
“Agurra” kontzerturako	1,800 €

Artikulu honetan aipatutako kopuru hauek guztiak **BEZ GABEKOAK** dira.

Oharra: Azken bost kontzeptuak (Ganbera Bizkaian eskuko egitaraua, askotariko triptikoak, kartelak, olana mikrozulatuak eta “agurrak”) egitea aukerazkoa izango da BOSentzat, kasu bakoitzean.

04. ORDAINTZEKO ERA.

Kontratuaren prezioaren ordainketa dagokion hileko faktura aurkeztean egingo da, harekin bat etorritz. Bertan, honakoak egongo dira jasota, bakoitza bere aldetik:

- 1- Iragarkien kudeaketa: kontratatutako prezioaren zati alikuota. (1/12)
- 2- Hilabete horretako publizitate-materialei dagokien prezioa, aurreikusitako prozedurari jarraituz eskatu eta emanda.

05. PREZIOAK BERRIKUSTEA.

Kontratu honetan egokia da prezioen berrikuspena.

Aplikatu beharreko formula edo indizea: Euskal Autonomia Erkidegoko KPI, esleipen datari dagokionez. Berrikuspena aplikatzeko metodoa edo sistema: prezioa indarraldiko azken hilabetearen eta esleipenaren hilabetearen arteko KPIren bariozioaren %85en arabera berrikusiko da, eta prezio gaurkotuak ez dira aplikagarriak izango esleipenetik urtebete igaro den arte. Adierazitako baldintzak betetzeko, hilabeteak osorik zenbatuko dira, eta borobildu egingo dira gehiegizkoak badira.

Berrikuspena egiteko, esleipendunak gutun ziurtatua bidali beharko du urteroko berria hasten den bakoitzean, eta bertan azaldu beharko ditu kopuru berriak. Hilabeteke epean ez badu BOSen erantzuna jasotzen, onartu egin direla ulertuko da.

06. BERMEAK.

Kontratuaren esleipena duen enpresak, hartutako obligazioak beteko dituela bermatzeko, behin betiko bermea osatu beharko du derrigorrez, esleipenaren zenbatekoaren %5i dagokion zenbatekoan, BEZ gabe.

Aipatutako bermea eratzeko epea hamabost egun naturalekoa izango da, kontratuaren esleipenaren berri eman eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, eta prezioaren erretentzio moduan edo Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina (SPKLTB) onartzen duen azaroaren 24ko 3/2011 Errege Dekretu Arautzailearen 96. artikuluan ezarritako edozein modutan eratu ahal izango da.

Bermeen itzulketa (osoak edo partzialak, hala beharko balitz), bermearen epea amaitu ostean egingo da, esleipendunak bere kontratu-betebehar guztiak bete ostean. Eta hori, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 97. artikulua ezarritakoaren arabera.

07. KONTRATUA BETEARAZTEA.

Kontratuaren betearazpena kontratistaren arrisku eta galdu-gordean egingo da.

Kontratua plegu honetan biltzen diren klausulen arabera beteko da, eta, hala behar balitz, txostenean jaso diren xehetasun teknikoaren arabera. Betiere, BOSek interpretatu ditzan kontratistari ematen dizkion jarraibideekin bat etorri.

08. ESLEIPENDUNAREN OINARRIZKO BETEBEHARRAK.

8.1. NAGUSIAK: esleipendunak ordaindu beharko ditu kontratatutako zerbitzua osorik betetzeko egin beharreko gastu guztiak: kontratua prestatzeko eta formalizatzeko izapideak, materialak eta instalazioak, bitarteko tresnak, eskulana, Gizarte Segurantzza, zergak, mota guztietako ardurak eta aseguruak, eta esleipena duen enpresari dagozkion edozein motatako beste zama eta betebehar guztiak (esleipena egiten denean horiek guztiak onartzen baititu), bai eta kontratutik edo lizitazioan parte hartzetik eratorritako beste guztiak ere.

Esleipendunari dagokio kontratua betearazteko beharrezkoak diren baimen eta lizentzia ofizialak zein partikularrak eskuratzea.

Esleipena duen enpresak diru gehigarriak jasotzeko eskubiderik gabe eskaini beharko ditu kontratua egoki garatu eta betetzeko beharrezko zerbitzuak: laneko bileretara edo informazio bileretara joatea, etab. Betebehar hori bermepeko aldia amaitu arte mantenduko da.

8.2. ARDURAK ETA KALTEAK: Esleipenduna izango da egiten dituen lanen kalitate teknikoaren eta emandako prestazio eta zerbitzuen arduraduna. Era berean, kontratua betetzeari dagozkion ekintzak egiterakoan sortzen diren kalteen erantzule ere izango da, SPKLTBren 214. artikulua dioenarekin bat etorri.

8.3. LAN-KONTRATUKOAK: Esleipenduna derrigortuta dago lan kontuei, Gizarte Segurantzari eta lan osasunari dagozkien indarreko lege guztiak betetzera, eta BOSek ez du ardurarik izango zentzu horretan egon daitezkeen ez betetzeetan.

Esleipena duen enpresak kontratu hau betearazteko garatu beharreko jardura guztiak egiteko langile nahikoak eta trebatuak izan beharko ditu. Esleipena duen enpresak erabakiko du zeintzuk diren bere langileen beharrezkoak, eta horrek ez du aurreko paragrafoan esandakoa aldatuko. Edozein kasutan ere, behar den moduan koordinatuta, eskaini beharreko zerbitzuak epeen barruan eta ondo eskaintzeko gai dela frogatzen duen giza taldea izan beharko du.

Esleipena duen enpresak bere lan betebeharrak betetzea ez da BOSen ardura zuzena izango, ezta elkartasunezko ardura edo zeharkakoa ere. Era berean, ez dira haren ardura izango, kontratuak irauten duen bitartean edo kontratua amaitu ondoren, izan daitezkeen lan-kontratuen amaierekin. Esleipena duen enpresak hartu beharko ditu bere gain hauetatik eratorri dakizkion ondorio juridikoak zein lan ondorioak, bai kontratu honek irauten duen bitartean, bai eta kontratua amaitu eta gero ere. BOSek ez du izango inolako lan arloko harreman juridikorik, zibilik ez

administratiborik zerbitzuak eskaintzeko esleipena duen enpresako langileekin.

8.4. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA: Edozein kasutan, lan arriskuen prebentzioari dagokionez, indarrean dagoen legeriak xedatzen dituen betebeharrak guztiak bete behar dira. Horretarako, kontratuak ezartzen duen zerbitzua eskaintzeko garatzen diren jardueretan lan arriskuen prebentziorako indarrean dagoen legedia egoki erabiltzeko legez ezarritako tresnak garatuko dira. Esleipena duen enpresa izango da esandako betebeharrak betetzearen arduradun bakarra. Hori dela eta, bera izango da betebeharrak ez betetzearen edo txarto betetzearen ondorioz gertatu daitezkeen ondorioen arduradun. Enpresa esleipenduna derrigortuta dago lan arriskuen prebentziorako arauak Euskalduna Jauregian edo zerbitzua garatzen duen beste lekuetan betetzera.

8.5. DATU PERTSONALAK: Esleipena duen enpresak, hala badagokio, kontratua betetzeko beharrezkoak zaizkiolako, automatizatutako izaera pertsonaleko datuak erabili beharko balitu, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak dioenari eta izaera pertsonaleko datuen babesari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legeari erreparatuta egingo du, bai eta xedapen horiek garatzen dituzten arauak betetz ere.

Esleipena duen enpresak ezingo ditu ezarri edo erabili kontratua dela-eta automatizatuta dituen izaera pertsonaleko datuak kontratuan agertzen ez diren helburuetarako.

Kontratuak eskatzen duen prestazioa bete ondoren, erabilitako izaera pertsonaleko datuak BOSi eman beharko zaizkio. Esleipena duen enpresak desegin egingo ditu dituenak, ez baldin badu BOSen idatzizko baimenik lortzen etorri daitezkeen zerbitzu berriak egiteko. Kasu horretan, bost urtean gorde ahal izango ditu datuak, dagozkien segurtasun baldintzekin.

8.6. JABETZA INTELEKTUALAREN ESKUBIDEA: lizitazio honen xede diren Zerbitzuak direla-eta enpresa esleipendunak egiten dituen lan guztien jabea BOS izango da.

Enpresa esleipendunak aplikagarriak diren Ustiapen Eskubide guztiak (Ustiapen Modalitate guztietan) lagatzen dizkio BOSi modu eskusiboan, mundu osorako eta legeak baimentzen duen iraupenik luzeenerako; eta hori, enpresa esleipendunak edo bertako langile zein kolaboratzaileek Jabetza Intelektualaren esparruan garatu ditzaketen sorkuntza guztiei dagokienez, lizitazio honen xede diren zerbitzuak betetz edo zerbitzu horiek direla eta.

Enpresa esleipendunak konpromisoa hartzen du, BOSen berariazko baimenik ezean, egindako lanen emaitzak ez erabiltzeko, erreproduzitzeko, transmititzeko, aldatzeko edo hedatzeko, BOSen alde aurreko eta berariazko baimenik gabe.

Era berean, enpresa esleipendunak bere kostuz defendatuko du hirugarrenek BOSen aurka egiten duten edozein errekamazio edo errekamazio-mehatxu, baldin eta errekamazio horien oinarria honakoa bada: lanok enpresa esleipendunak garatu beharrekoak izatea, lizitazio honen barruan; hirugarrenen jabetza intelektual edo industrialaren eskubideak urratzea; edo hirugarrenen sekretu komertzial edo industrialen eskuratze bidegabea izatea.

Esleipena duen enpresak egin beharko ditu, behar den kasuetan, utzi behar diren jabetza intelektualaren eskubideen jabeekin egin beharreko kontratuak.

8.7. SEKRETU PROFESIONALA ETA ISILPEKOTASUNA: enpresa esleipendunak derrigorrez gorde beharko du sekretu profesionala, kontratuaren xede den lana egiteko orduan BOSek emandako informazioari eta dokumentazioari dagokienez.

Ondorioz, debekatuta dago euskarri magnetikoetan zein ohikoetan jasota dagoen BOSen isilpeko informazioa erreproduzitu, banatu, komunikatu, eraldatu, helarazi edo beste edozein manipulazio egitea, inongo pertsona fisiko edo juridikori, dohainik edo diru trukean.

Obligazio hori kontratuaren xede diren jarduerak irauten duten bitartean eta jarduerak amaitu ostean egongo da indarrean, informazio hori jabari publikokoa izatera heldu arte edo, legezko beste arrazoi

batzuk direla-eta, isilpekotasuna amaitu arte.

Enpresa esleipenduna arduratuko da bere zerbitzupean dauden langileek eta bertako kolaboratzaile edo azpikontratatu gisa ari diren pertsonen zein erakundeek isilpekotasun arloko obligazioak bete ditzaten.

Enpresa esleipendunak soilik kasu batean emango du isilpeko informazioa: kontratatutako jarduera eta zerbitzuak garatzeko orduan, langileek informazio hori behar dutenean.

Enpresa esleipendunak ez du BOSen isilpeko informazioa erabiliko bere helburuetarako, helburu pribatuetarako edo beste edozein helburutarako. Isiltasun profesionalaren betebeharra apurtzen badu, esleipena duen enpresak kalte-ordainak ordaindu beharko dizkie BOSi eta kaltetutako pertsoneri, egindako kalte-galerengatik.

8.8. LEHIA LIBREKO BERMEA: prozedura honetan eta etorkizunekoetan zerbitzua ematen duen kontratistak bere egoera modu okerrean erabili ez dezan, aldaketa-prozesuan zehar honakoak egin beharko ditu derrigorrez:

- Eskualdaketarako behar den informazio tekniko eta administratibo guztia ematea, gehienez ere, 2 asteko epean.
- Zerbitzu-mailak ez degradatzea.
- Aldaketa-prozesua ez oztopatzea.

Era berean, kontratua indarrean dagoen bitartean, eta esleipendun aldaketagatiko txandakatze posiblea ahalbidetzeko asmoz, enpresa esleipendunak erabiliko dituen teknologiek eta sistemek ez diote kontratatutako zerbitzuen kudeaketa zailduko edo oztopatuko esleipendun berri bati.

8.9. EUSKARAREN ERABILERA: zerbitzu honen xede den publizitate oro **elebiduna** izango da, euskaraz eta gaztelaniaz. Gainera, hizkuntza biak berdintasunez erabiliko dira, publizitate-materialaren diseinuetan zein testuen edukietan; eta hori, hizkuntza bakoitzaren irizpide linguistikoak eta indarrean dagoen legezko araudia kontuan izanik.

09. BERMEAREN ONARPENA ETA EPEA.

Obrak bukatu eta, gehienez, hogeita hamar eguneko epean, kontratuaren helburuak betetzeko egintza formala eta positiboa egingo da.

Era berean, hirurogei eguneko epea finkatzen da, onarpen formala egiten den egunetik zenbatzen hasita, SPKLTBk ezarritako ondorioen berme gisa. Bermearen epe honetan, enpresa kontratista izango da egindako lanetan edo eskainitako zerbitzuetan agertu daitezkeen hutsen edo akatsen erantzulea. Bermearen indarraldia amaitu arte, esleipena duen enpresaren erantzukizuna izango dira kontratatutako lanak eta hauetan egon daitezkeen akatsak. Gainera, BOSeko arduradunek lanak egiten egon diren artean ikuskatzea edo egiaztapenak, balorazioak zein zatikako egiaztagiriak onartzea ez da izango salbueslea eta ez dio esleipena duen enpresari inolako eskubiderik emango.

Aipatutako epea BOSek arazorik jarri gabe igarotzen bada, esleipendunaren ardura indarrrik gabe geldituko da.

10. BETEBEHARRAK EZ BETETZEA ETA ZIGORRAK.

Kontratuari dagozkion betebeharrak betetzen ez baditu, esleipena duen enpresari zigor ekonomikoak ezarriko zaizkio, aurretiaz entzunaldia eginda.

Betebeharren ez betetzeak oso larriak, larriak eta arinak izango dira, euren larritasunaren, zerbitzuan izan duten eraginaren eta BOSi zein hirugarren pertsoneri eragin dizkieten kalteen arabera.

Esleipena duen enpresari zigorra ezarriko zaio kontratuak ezarritako baldintzetako edo eskainitako hobekuntzetako bat edo gehiago betetzen ez badituzte:

A) EZ BETETZE OSO LARRIAK:

- Kontratututako prestazioak etetea arrazoi handirik edo BOSek onartutako justifikaziorik gabe.
- Kontratua aldi baterako edo behin betiko bertan behera uztea, aurretik baimenik eman gabe.
- Esleipena duen enpresari eskatu ahal zaizkion betebeharren ez betetze larria edo errepikatua.
- Arrazagatiko, sexuagatiko, erlijioagatiko, hizkuntzagatiko edo iritziagatiko bazterketari lotutako edozein ekintza.
- Egin beharreko lanen betearazpenean edota zerbitzuetan atzerapenak izatea, horrek oso kalte larria eragingo balio BOSen irudiari.
- Hiru arau-hauste larri egitea.

B) ARAU-HAUSTE LARRIAK:

- Izango duten eraginagatik oso larriak izango ez diren BOSek emandako jarraibideak edo aginduak eta kontratuan dauden betebeharrak ez betetzea edo ez egitea.
- Kontratuan agertzen diren lanen atzerapena.
- Arau-hauste arin bi egitea.

C) ARAU-HAUSTE ARINAK:

- Esleipena duen enpresari eskatu ahal zaizkion betebeharretan huts egitea edo arrazoirik gabeko arduragabekeria izatea.

ZIGORRAK: Esleipena duen enpresak arauak hausteak honako zigorrak eta ondoren azaldutako zenbatekoekin ezarri ahal izango dira:

- 1) Oso arau-hauste larriak: hilabeteko fakturaren %50ari dagokion zigor ekonomikoa, hutsegite bakoitzeko.
- 2) Arau-hauste larriak: hilabeteko fakturaren %25ari dagokion zigor ekonomikoa, hutsegite bakoitzeko.
- 3) Arau-hauste arinak: hilabeteko fakturaren %5ari dagokion zigor ekonomikoa edo ohartarazpena, hutsegite bakoitzeko.

BOSen Zuzendaritzari dagokio, edo honek eskuduntza ematen dion organoari, kontratua hausteagatik zigorrak ezartzea.

Esleipena duen enpresak arau-hauste larriak edo oso larriak egiten dituenean, BOSek aukeratu egin

ahal izango du kontratua haustea edo goian azalduko zigorrak ezartzea.

Zigorren zenbatekoak, normalean, enpresa esleipendunari ordaindu beharreko fakturretatik kenduko dira.

Zigorrek ez dute salbuetsiko esleipena duen enpresak eskaintako zerbitzuengatik hirugarren pertsonen edo BOSi egindako kalte-galerak ordaintzea. Zerbitzutik eratorri daitezkeen kalte-orainak ere berak ordaindu beharko ditu.

11. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK.

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak SPKLTBren 223. eta 308. artikuluetan agertzen direnak izango dira.

12. ESLEITZEKO PROZEDURA ETA MODUA.

Kontratu hau **prozedura ireki** bidez esleituko da, eta Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE) eta Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean (EBEO) argitaratuko da.

Era berean, BOSen kontratatzailearen profilean ere argitaratuko da lizitazioa; honako atari informatiko edo webgunearen bidez sartu ahal izango da bertara: www.bilbaorquestra.com

Leku horretan bertan, pleguak eta dokumentazio osagarria egongo dira eskuragarri.

Eskaintzak baloratzeko irizpideak (kontratua esleitzeko oinarri gisa hartu behar dira) honakoak dira:

- a) **Prezioa:** gehienez ere, 51 puntu.
- b) **Sorkuntza arloko kalitatea:**gehienez ere, 44 puntu.
- c) **Hobekuntzak:**..... gehienez ere, 5 puntu.

PREZIOAREN BALORAZIOA: Lizitazioaren prezioaren beheranzko hobekuntzak egin ahal izango dira, eta puntu bihurtuko dira, irizpide honi jarraituz: puntuaziorik handiena eskaintza merkeenari emango zaio, eta gainerako eskaintzak alderantzizko hiruko erregelaren arabera puntuatuko dira, formula honekin:

$$\text{Puntuazioa} = (\text{eskaintzarik merkeena} / \text{eskaintza}) \times \text{puntuaziorik altuena}$$

SPKLTBko 152. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, ez dira onartuko orri hauen laugarren klausulan ezarritako prezioa %20 edo gehiago jaisten duten proposamenak, ohikoak ez direlako edo proportziorik gordetzen ez dutelako. Aipatutako artikulua aurretiaz azaltzen dituen baldintzetan entzungo dira lizitatzaileren arrazoiak.

SORKUNTZA ARLOKO KALITATEAREN BALORAZIOA: Proposamenen kalitatea aurkeztutako dokumentazioaren arabera baloratuko da, betiere, kontratuak aurreikusten dituen helburuetara egokituta dagoen edo ez kontuan izanda.

14. artikulua c.1) paragrafoan ezarritakoari jarraituko zaio.

Bere betearazpenetatik edo edukiengatik kontratuaren arrazoiak edo helburuak betetzeko egokiak ez

diren proiektuak aurkezten dituzten eskaintzak onartezinak izango dira. Era berean, onartezinak izango dira definituta ez daudelako lanen azken emaitza ebaluatzea ahalbidetzen ez duten eskaintzak.

HOBEKUNTZEN BALORAZIOA: Lizitatuzaileak aurkezten dituen hobekuntza guztiak baloratuko dira, baldin eta zerbitzu hobea eskainiko badute, BOSi gastu gehigarriak eragin gabe. Eskaintako zerbitzuen kalitatea eta kudeaketa hobetzen lagunduko duten enpresaren merituak ere baloratuko dira. Enpresa esleipendunek proposatutako hobekuntzen balorazio ekonomikoa aurkeztuko dute, posible dutenean. BOSentzat prezioaren igoera eragingo duten proposamenak ez dira hobekuntzat hartuko.

13. KONTRATATZEKO AHALMENA.

Kontratatzeko prozedura honetan, ahalmen juridiko osoa eta jarduteko ahalmen osoa duten pertsona naturalek eta juridikoek parte hartu ahal izango dute, eta, orobat, ondo frogatzen badute ez daudela sartuta SPKLTBren 60.1 artikulua ezartzen dituen kontratatze debekuren batean.

Era berean, kontratua beren kabuz egin ahal izango dute, edo, bestela, baimendutako pertsona baten ordezkariaren bidez, ondorio horretarako behar adina ahalorde emanaz. Pertsona juridiko baten ordezkariaren kideren bat azaltzen baldin bada, ordezkariaren jarduteko ahalmena duela egiaztatu beharko du, agiriak erakutsiz. Hala kasu batean nola bestean, ordezkariak lehen aipatu diren kontratatze ezintasuneko arrazoen eragina jasoko du.

Era berean, enpresaburuek kontratuaren xedearen jardura edo prestazioa emateko eskatu daitekeen gaitasun enpresarial edo profesionala izan beharko dute.

14. PROPOSAMENAK AURKEZTEA.

Proposamenak BOSen egoitzan aurkeztuko dira (Euskalduna Jauregia, Abandoibarra etorbidea 4, 48011), 09:00etatik 14:00etara, **berrogei egun naturaleko** epean, Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean lizitazio iragarkia argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita.

Epea bukatu ondoren aurkezten diren proposamenak ez dira onartuko, nahiz eta jasota egon epea burutu aurretik aurkeztu zirela posta-bulegoan. Salbuespena egingo da, ordea, kontratazio-organoari telex edo telegrama bidez bidaltzen bazaio eskabidea igorri izanaren data egiaztatzen duen agiria, postaz bidali izan den egun berean.

Proposamena entregatuta eta onartuta dagoenean, lizitazioa egin duen enpresak ezingo du berriro hartu, justifikatutako arrazoirik ez badago. Beste eskaintzarik ere ezingo du aurkeztu, ez berak bakarrik ez beste enpresa batzuekin aldi baterako enpresa bat osatuta. Ezingo du Aldi Baterako Enpresen Elkarte bat baino gehiagotan agertu. Aipatutakoa bete ezean, baztertu egingo dira enpresa horrek aurkeztutako proposamen guztiak.

Lizitatuzaileek itxizko hiru gutun-azal aurkeztu beharko dituzte (A, B eta C), eta, gutun-azal bakoitzean, honakoa egongo da idatzita: **“BOSentzako PUBLIZITATE AGENTZIA BATEN KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA”**.

Gutun-azal guztiek egon beharko dute kanpoan identifikatuta, honako datuekin:

GUTUN-AZALA:
AZPITITULUA: PUBLIZITATE AGENTZIA

Enpresaren izena:
Helbide soziala:
Helbide elektronikoa:
Harremanetarako telefonoa:
Faxa:
Ahaldunaren izen-abizenak:
Ahaldunaren sinadura:

“A” gutun-azalaren azpitulua hauxe izango da: **“ADMINISTRAZIOKO AGIRIAK”**; eta agiri hauek edukiko ditu barnean:

1) Kontratistaren **sailkapena** egiaztatzen duen agiria, **T taldeko 01 azpitaldeko A kategoriako** zerbitzuak kontratatzeko.

2) Kontratisten Erregistroaren datuen baliozkotasunaren erantzukizun-adierazpena, 4. eranskin gisa gehitutako ereduaren arabera.

3) Lizitaziora hainbat enpresaburu batera aurkezten badira Aldi Baterako Enpresa Elkarte (ABEE) bat eratuta, elkartearen eratzten duen enpresa bakoitzak bere ahalmena eta kaudimena egiaztatu beharko du, aurreko puntuetan ezarritakoari jarraiki. Orobat, eskaintzan ondo jaso beharko dute ABEEko kide bakoitzak xedearren zein zati egingo duen, hartara, kide guztien kaudimen-baldintzak behar bezala egiaztatu eta ziurtatu ahal izateko.

B gutun-azalaren azpitulua **“ESKAINZA EKONOMIKOA”** izango da.

Eskaintza ekonomikoa izango du, 3. eranskinean jasotako ereduaren arabera.

“C” gutun-azalaren azpitulua **“IRITZI BATEN MENPE DAUDEN BALORAZIO-IRIZPIDEAK”**.

Plegu honetan agertzen diren gainerako irizpideak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentuak izango ditu; zehatzago esanda:

b.1) **Sorkuntza arloko kalitateari** dagokionez, eredu honi jarraituko zaio balorazioa egiteko:

1.1.) Prentsan argitaratuko den iragarki baten diseinuaren zirriborro originala, 2012-2013 denboraldiko 5. egitaraua hartuz gaitzat.

1.2.) Publizitate-material hauen diseinuaren zirriborro originalak:

- Iragarpen-kartel bat, 2012-2013 denboraldiko 7. egitaraua hartuz gaitzat.
- Kanpoaldean jartzeko olana mikrozulatu bat, 2012-2013 denboraldiko 1. egitaraua hartuz gaitzat.

- 2013-2014 denboraldiko egitarauaren aurrerapen bat, 2012-2013 denboraldiari dagozkion datuak erabilia.
- Denboraldiko egitarau bat, 2013-2014 denboraldiko sei egitarau sinfoniko hartuz gaitzat. Gainera, 2012-2013 denboraldiko egitarauko 60 eta 65. orrialdeen artean jasotako informazioa erabili behar da.

2) Plegu honek ezartzen dituen gutxienerako betebeharrerarako proposatzen diren **hobekuntzak**.

15. AGIRIAK SAILKATZEA ETA ESKAINTZAK ZABALTZEA.

Eskaintzak aurkezteko epea amaitzen denean, BOSek epearen barruan eta behar den moduan jasotako agiriak sailkatuko ditu ("A" gutun-azala). Inolako akatsik aurkitzen badu, hiru laneguneko epea eskainiko du, lizitatzaileak akatsa zuzendu dezan.

"B" eta "C" gutun-azalak eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta laugarren laneguneko goizeko hamaiketan egingo den ekitaldi publikoan zabalduko dira.

16. ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA.

Kontratazio organoa BOSen Presidentetza izango da. Kontratua esleitzeko, kontratazio organoak honako kideek osatutako kontratazio batzorde baten laguntza izango du:

- BOSeko Patronatuko langileak.
- BOSeko zuzendari nagusia.
- BOSeko komunikazio arduraduna.
- Idazkaria: BOSeko Patronatukoa.

Esleipena bi hilabeteko epean egingo da gehienez, izendapenaren eskaintzak zabaltzen diren egunaren biharamunetik kontaktzen hasita. Kontratua Kontratazio Organoak egindako esleipen bidez hobetuko da. BOSek eman gabe utzi ahal izango du lizitazioa, baldin eta eskaintza batek ere ez badu zerbitzua modu egokian emateko baldintzarik.

Esleipena jakitera emango zaio esleipendunari, eta horrek egutegiko hamabost eguneko epea izango du honakoak egiteko, jakinarazpena jasotzen duen egunaren biharamunetik zenbatzen hasita:

- a) Behin betiko bermea osatu.
- b) Aldizkari bakar batean eta behin bakarrik publizitate ofiziala egiteak eragindako gastuak ordaindu, hau da, gehienez 1.200,00 euro.
- c) BOSeko egoitzara joan, eta, azkenik, kontratua formalizatu.

Kontratua sinatu aurretik, esleipendun gisa proposatu den pertsonak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen dituela frogatzen duten egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu, eskaintzarekin batera aurkeztu diren kasuetan izan ezik.

Kontratistari leporatu dakizkiokeen arrazoiak direla-eta kontratua formalizatu ezean, BOSek kontratua suntsitzea erabaki ahal izango du, kalte-ordainen ordainketa eskatuz, betiere, interesdunari entzun ondoren.

Kontratuaren betearazpena ez da hasiko aurretik formalizatu gabe, txostenaren tramitazioaren izaera presazkoa edo larrialdikoa ez baldin bada, behintzat.

17. KONTRATUA ALDATZEA.

Behin kontratua hobetu eta gero, kontratazio organoak interes publikoko arrazoiak daudelako edo ustekabeak gainditzeko aldatu ahal izango du kontratua. Horretarako, hauen beharrezakoa behar den moduan justifikatu beharko du txostenean.

Kontratuarekin bete behar diren beharrezakak egoki gogobetetzeko, lurralde esparrua edo ekintza eremua zabaltzea eragingo duten helburu berriei erantzuteko aldatu ahal izango da kontratua.

Aldaketa horiek ezingo diete eragin kontratuaren oinarritzko baldintzei. SPKLTBren 305. artikulua dioenari men egingo zaio bereziki.

18. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA.

Plegu honen oinarriaren gainean egiten den kontratuak izaera pribatua izango du.

Kontratua plegu honetan idatzitako klausulen arabera gidatuko da, edo, bestela, hauen bidez:

- SPKLTB.
- Modu osagarrian, zuzenbide administratiboaren arloko gainerako arauak aplikatuko dira, edo, bestela, zuzenbide pribatuari lotutako arauak.

Administrazio-baldintza partikularren plegu honen eta espedienteari atxikita dauden gainerako agiri teknikoaren artean kontraesanik balego, plegu honetan ezarritakoak izango luke lehentasuna.

19. JURISDIKZIO ESKUDUNA.

Kontratuaren sakonean sortzen diren lege-auziak jurisdikzio arruntak ebatziko ditu, eta prestakuntzan zein esleipen bidean sortzen direnak, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioak. Kasu bietan ere Bilboko epaitegiek eta auzitegiek hartuko dituzte ebazpenak. Hala ere, alderdiek beraien auziak arbitrajearen pean jartzea adostu dezakete, indarrean dagoen legerian ezarritakoarekin bat etorriz.

1. ERANSKINA

IRAGARKIAK KUDEATZEKO ZERBITZUA EMATEKO ZEHAZTASUN TEKNIKOAK

1.1 Zerbitzuaren barruan honakoak sartzen dira:

- a) 2. eranskinean aipatzen den publizitate-material guztia sortzea.
- b) BOSen kontzertu/jardueren iragarki originalak sortzea, testutik hasi eta amaierako artera heldu arte.
- c) Hainbat formatu egokitzea.
- d) Testuak berriro ukitzea.
- e) Euskarazko itzulpena. (Eskatzen zaionean soilik).
- f) Enpresa kontratistak kudeatu egin beharko du adierazten zaizkion idatzizko edota ikus-entzunezko medioetan agertzen diren iragarkien argitalpena, hedapen egokia bermatuko duen leku edo unean. **(Zerbitzuaren xedeen artean ez dago publizitate-espazioak “erostea”, horretaz BOS arduratzen baita zuzenean)**
- g) Iragarkien jarraipena eta kontrola.

Kontratuaren xedeen artean ez daude telebista eta irratiko iragarkien produkzio-gastuak, horiek aparteko aurrekontua izango dute eta.

Enpresa kontratistak baliabide egokiak izan beharko ditu (makineria, langile-taldea, eta eman beharreko prestazioari dagokion kontrolaren eta kalitatearen arduradunak), bidaltzen zaizkion iragarkiak jaso ahal izateko.

Hala eskatzen den guztietan, enpresa kontratistaren ordezkari bat BOSen egoitzara joango da, duten izaeragatik edo konplexutasunagatik ohiko bideetatik bidali ezin diren iragarkiak jasotzera.

1.2. Argazki eta irudien erabilera: irudiak erabiltzen direnean, BOSenak edo kontzertuetan parte hartzen duten artistek lagatakoak izan beharko dira, edo, bestela, irudi-banku bat erabili beharko da. Hala dagokionean, BOSek egingo du argazki eta irudiak erabiltzeagatik eskubideen ordainketa (dagokion aurrekontua onartu ostean).

1.3. Irizpide orokorrak: iragarkiek diseinu moderno, sortzaile eta originala izan beharko dute. Diseinu erakargarri, garbi eta irakurterraza izango dute, eta irakurlearengan eragin bisual indartsu eta positiboa sorrarazi beharko dute.

1.4. Diseinua eta konposizioa: proposamena osatzen duten elementu guztiek argi errespetatu eta nabarmendu beharko dute BOSen irudi korporatiboa.

1.5. Aurkezpena: lizitatzailerak, eskaintzekin batera, egingo den iragarkiaren zirriborroa aurkeztu beharko dute, plegu hauetan aipatutako musika-egitaraua hartuz gaitzat. Beste gai batzuk dituzten zirriborroak ez dira onartuko.

1.6. Zerbitzuaren zuzendaritza eta ikuskaritza: BOSek zehaztutako saila arduratuko da kontratatutako zerbitzuaren zuzendaritzaz eta ikuskaritzaz. Sail horrek argibideak eman ahal izango dizkio esleipendunari, baldin eta horrek ez badu aldaketarik sorrarazten baimendutako zerbitzuan eta argibide horiek ez badoaz plegu honetan eta gainerako kontratu-agirietan zehaztutakoaren edo indarrean dauden legezko xedapenen aurka.

2. ERANSKINA PUBLIZITATE-MATERIALA

1. LEHIAKETA HONEN XEDE DEN PUBLIZITATE-MATERIALAREN EDUKIA:

- a) **Denboraldiaren aurrerapen** elebidunaren (euskara-gaztelania) diseinua, BOSen programazioarekin. Denboraldi bakoitzean **15.000 aurrerapen** inprimatu eta ematea.
- b) **Denboraldiko egitarau** elebidunaren (euskara-gaztelania) diseinua, BOSen programazioarekin. Denboraldi bakoitzean **3.000 egitarau** inprimatu eta ematea.
- c) **Denboraldi sinfonikoko eskuko egitarauen** diseinua Elebidunak (euskara-gaztelania) izango dira, eta kontzertu zehatz bakoitzaren programa izango dute. Denboraldi bakoitzean **51.000 egitarau** inprimatu eta ematea. (17 kontzertu x 3.000 egitarau)
Aurreikusten da 45.000 egitarau izango direla, hamabi eta hamasei orrialde bitartekoak, eta 6.000 egitarau, hogeita eta hogeita lau orrialde bitartekoak.
- d) **Ganberako denboraldiko eskuko egitarauen** diseinua. Elebidunak (euskara-gaztelania) izango dira, eta kontzertu zehatz bakoitzaren egitaraua izango dute. Denboraldi bakoitzean **4.000 egitarau** inprimatu eta ematea.
- e) **“Ganbera Bizkaian” denboraldiko eskuko egitarauen** diseinua. Elebidunak (euskara-gaztelania) izango dira, eta aipatutako kontzertuen egitaraua izango dute. Denboraldi bakoitzean **1.750 egitarau** inprimatu eta ematea.
- f) **Askotariko triptikoen (“Musika, hurbiletik” eta beste batzuk...)** diseinua denboraldian. Elebidunak (euskara-gaztelania) izango dira, eta dagokien informazioa izango dute. Denboraldi bakoitzean **6.000 triptiko** inprimatu eta ematea.
- g) BOSen programatutako kontzertuetako **kartelen** diseinua (euskara-gaztelania). Urtean **1.500 kartel** inprimatu eta ematea (75 kartel, kontzertu bakoitzeko), gutxienez 20 kontzerturako.
- h) BOSek programatutako kontzertuetan, kanpoaldean jarriko diren **olana mikrozulatuen** diseinua (euskara-gaztelania). Urtean **10 olana** mikrozulatu produzitu eta ematea.
- i) **Kontzerturako “agurren”** diseinua (euskara-gaztelania). Denboraldi bakoitzean **100 agur** inprimatu eta ematea.

1. oharra: BOSek elementu horietakoren bat edo batzuk berrinprimatu beharko balitu, prezioa ezin izango da inprimaketa arrunta baino handiagoa izan.

2. oharra: Ganbera Bizkaian eskuko egitarauak, askotariko triptikoak, kartelak, olana mikrozulatuak eta “agurrak” egitea aukerakoa izango da BOSentzat, kasu bakoitzean.

2. DISEINURAKO ETA ERREALIZAZIORAKO KONTUAN IZAN BEHARREKO OINARRIZKO PUNTUAK:

2.1. Publiko xedea: aldizkariak eta kartelak Bizkaiko gizarte osoari daude zuzenduta.

2.2. Irizpide orokorrak: publizitate-materialek diseinu moderno, sortzaile eta originala izan beharko dute. Diseinu erakargarri, garbi eta irakurterraza izango dute, eta irakurlearengan eragin bisual indartsu eta positiboa sorrarazi beharko dute. Eduki literarioa eta testuen idazketa musika klasikoaren sektoreari dagozkion irizpideetara egokitu beharko dira.

2.3. Diseinua eta konposizioa: proposamena osatzen duten elementu guztiek argi errespetatu eta nabarmendu beharko dute BOSen irudi korporatiboa.

- **Denboraldiaren aurrerapenak** A3ra bitarteko diseinua eta neurria izan ahalko ditu, eta hori kasu bakoitzean zehaztuko da. Gutxienez orrialde 1, kuadriptikoa, distiradun couche paperean inprimatuta (gutxienez 150 gramokoa), 4 + 4 tintarekin.
- **Denboraldiko egitarauak** A4ra bitarteko diseinua eta neurria izan ahalko ditu, eta hori kasu bakoitzean zehaztuko da. Gutxienez 68 orrialde, gehi azalak atzealdeko azal-hegalarekin, 4 + 4 tintarekin + azaleko bernizarekin inprimatuta, distiradun couche paperean (250 gramokoa azaletarako eta 150 gramokoa barrualderako).
- **Denboraldi sinfonikoko eskuko egitarauak** A4ra bitarteko diseinua eta neurria izan ahalko ditu, eta hori kasu bakoitzean zehaztuko da. 4 + 4 tintarekin + azaleko bernizarekin 170 g-ko paper iztukatu matean inprimatutako azala. 4 + 4 tintarekin 115 g-ko paper iztukatu matean inprimatutako eta 2 graparekin jositako barrualdea + azaleko data berrinprimatuta. Maketazioa barne.
- **Ganberako denboraldiko eskuko egitarauak** A4ra bitarteko diseinua eta neurria izan ahalko ditu, eta hori kasu bakoitzean zehaztuko da. 4 + 0 tintarekin + azaleko bernizarekin 170 g-ko paper iztukatu matean inprimatutako azala. 2 tintarekin 170 g-ko paper iztukatu matean inprimatutako barrualdea.
- **Ganbera Bizkaian egitarauak** A4ra bitarteko diseinua eta neurria izan ahalko ditu, eta hori kasu bakoitzean zehaztuko da. 2 + 2 tintarekin 200 g-ko paper iztukatu matean inprimatua.
- **Triptikoak (“Askotariko triptikoak”)** A4ra bitarteko diseinua eta neurria izan ahalko ditu, eta hori kasu bakoitzean zehaztuko da. 4 + 4 tintarekin 150 g-ko paper iztukatu matean inprimatua.
- **Kartelek** 60 x 90 zentimetroko neurria izan beharko dute, couche paper matean (gutxienez, 150 gramokoa) eta 4 + 4 tintarekin inprimatuta.
- **Kanpoaldean jarriko diren olana mikrozulatuek** 320 x 275 zentimetroko neurria izan beharko dute, perimetro osoan oinkatutako olana mikrozulatueta; zuloa izango dute 40 zentimetro bakoitzeko, eta alde bakarretik egongo dira inprimatuta. Prezioaren barruan sartzen da olana bakoitza instalatu eta erretiratzea.
- **Kontzerturako “agurra”** 210 x 100 mm-ko txartelak izango dira, bi aldeetatik kuatrikromian inprimatuta (4/4 tinta) 270 g-ko kartulina grafiko batean.

2.4. Sartuta dauden kontzeptuak: lizitatzaileren proposamenean, beharrezko partida guztiak sartuta daudela ulertzen da. Besteak beste, hauek: kudeaketak Arte Grafikoetako enpresekin eta enpresa fotomekanikoekin, argazki-materialaren kokapena, testuak euskarara itzultzea (hala beharko balitz),

deiak, faxak, mezularitza, garraioak eta abar. Era berean, kuartrikomiako fotolitoen filmazioa dagokion neurrian, inprimatu aurretik BOSek onartu beharko dituen kolore-probekin. Egin beharreko argazki-erreportajeak aurrekontu honetatik kanpora geratzen dira, eta, beraz, BOSen alde aurreko baimena beharko dute.

2.5. Argazki eta irudien erabilera: irudiak erabiltzen direnean, BOSenak edo kontzertuetan parte hartzen duten artistek lagatakoak izan beharko dira, edo, bestela, irudi-banku bat erabili beharko da.

2.6. Lanak BOSen egoitzan ematea: publizitate-materiala BOSen egoitzan emango da zuzenean, adostutako epeen barruan.

2.7. Aurkezpena: lizitaztaileek, eskaintzekin batera, publizitate-materialen zirriborroak aurkeztu beharko dituzte, plegu hauetan aipatutako musika-egitaraua(k) hartuz gaitzat. Beste gai batzuk dituzten zirriborroak ez dira onartuko.

2.8. Diseinu irabazlearen erabilera: behin lehiaketaren irabazlea zehaztuta, lan horren diseinua BOSen jabetzakoa izatera pasatuko da, arlo guztietan. BOSek, hala egin behar dela uste duenean, zenbait aldaketa egiteko eskatu ahal izango die egileei, batez ere testuen idazketari eta eduki literarioari dagokienez. Aldaketa horiek egileek beraiek egin beharko dituzte. Edozelan ere, uneoro errespetatuko da diseinuaren irizpide orokorra. BOSek beharrezko informazioa emango du publizitate-materiala osatu ahal izateko.

2.9. Zerbitzuaren zuzendaritza eta ikuskaritza: BOSek zehaztutako saila arduratuko da kontratatutako zerbitzuaren zuzendaritzaz eta ikuskaritzaz. Sail horrek argibideak eman ahal izango dizkio esleipendunari, baldin eta horrek ez badu aldaketarik sorrarazten baimendutako zerbitzuan eta argibide horiek ez badoaz plegu honetan eta gainerako kontratu-agirietan zehaztutakoaren edo indarrean dauden legezko xedapenen aurka.

3. ERANSKINA

Eskaintza ekonomikoaren eredia.

Nik, jaunak/andreak,
 helbidea, PK,
 telefonoa eta NAN ditudanak, nire ahalmen juridiko eta jarduteko
 ahalmen osoa izanik, eta nire izenean jardunez (edo honen ordezkartzan:
,helbidea, PK,
 telefonoa eta NAN edo IFZ -persona
 fisikoa edo juridikoa-), BOSerako PUBLIZITATE AGENTZIA zerbitzurako zabaldu den
 lizitazioaren jakinaren gainean,

HAUXE ADIERAZTEN DUT NEURE ARDURAPEAN:

1) Hitz ematen dut zerbitzu hau burutuko dudala, eta prezioa hau izango dela:

	Prezioa, BEZ gabe	BEZ	Prezioa, BEZ barne
Iragarkien kudeaketa			

2) Hitz ematen dut zerbitzu hau emango dudala, plegu hauen 2. eranskinean jasotako zenbatekoetarako eta prezio unitario hauetan:

	Unitate bakoitzaren prezioa BEZ gabe	BEZ	Unitate bakoitzaren prezioa BEZ barne
Denboraldiaren aurrerapena			
Denboraldiko egitaraua			
Denboraldi sinfonikoko eskuko egitaraua			
Ganbera denboraldiko eskuko egitaraua			
Ganbera Bizkaian egitaraua			
Triptikoa (Askotariko triptikoak)			
Kartela			
Olana mikrozulatua			
Kontzerturako "agurra"			

Prezio horrek kontzeptu guztiak barruan hartzen dituela ulertzen da, edozein zerga-mailatako

zergak, gastuak, tasak, arielak eta kontratistaren industria-onura barne.

3) Ondo ezagutzen ditut Administrazio Klausula Partikularren Plegua eta Xehetasun Teknikoak nahiz kontratu hau zuzenduko duten gainerako agiriak. Horiek guztiak nire gain hartzen ditut berariaz, eta men egiten diet.

4) Ordezkatzen dudan enpresak indarrean dauden arauak eskatzen dituzten baldintza guztiak betetzen ditu, enpresa zabaltzeari, instalatzeari eta jardunean jartzeari dagokienez.

.....(e)n, 200....(e)ko,aren(e)(a)n

Iz.:

Enpresaren zigilua

4. ERANSKINA

Kontratisten Erregistroko datuen baliozkotasunaren erantzukizun-adierazpenaren eredia.

Nik, jaunak/andreak (NAN zk.:), neure izenean edo enpresaren ordezkari legez (helbidea:; eta IFZ zk.:),

NIRE ERANTZUKIZUPEAN ADIERAZTEN DUT:

Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistro Ofizialak igorritako ziurtagirian jasotako datu eta egoerak baliozkoak direla eta indarrean daudela, eta, Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legeko 49. artikularekin bat etorriz, ez daukagula kontratatze inolako debekurik. Berariaz ulertzen dugu inguruabarren adierazpen honetan indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta ditugula. Ezaugarri horiek justifikatzeko egiaztagiria kontratua formalizatu aurretik aurkezteko konpromisoa hartzen dut, esleipena nire izenean egiten bada.

.....(e)n, 2013koaren(e)(a)n.....

Iz.:

Enpresaren zigilua